

Ospitalizazioak %3,9 hazi ziren 2006an


Mediku-alta jaso zuten pazienteen %76 ospitale publikoetan artatu zituzten

Euskal AEko akutuentzako ospitaleetan 291.332 alta erregistratu ziren 2006an, eguneko ospitaleko unitateetan ospitalizatutako edo ingresatutako 228.828 pertsonarenak. Aurreko urtean baino %3,9 gehiago, Eustaten datuen arabera. Pazienteen batez besteko egonaldia aurreko urteko 5,5 egunetik 2006ko 5,1era jaitsi zen.

Nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak %10,5 hazi ziren 2006an, Euskal AEko akutuentzako ospitaleetako hirugarren ospitalizazio arrazoia izan zirelarik. Begi-lausoa izan zen patologiarik diagnostikatuena; eguneko ospitalean tratatu ohi da. Bestaldetik, **%5,9 jaitsi ziren arnas aparatuko** gaixotasunengatik ospitalizazioak; bereziki bronkitis akutua, pneumonia eta gripea.

2006an mediku-alta jaso zutenen %76 ospitale publikoetan artatu ziren, eta %24 pribatuetan. Ospitalizazioen %51,3 emakumeenak izan ziren eta %48,7 gizonenak; haurdunaldi eta erditzeek eragin handia dute banaketa horretan. Ospitalizatzen diren gizonezkoen artean gehienbat 73 urtekoak daude. Aitzitik, emakumezkoen artean 78koak (haurdunaldia eta erditzea kontuan hartu gabe).

1. grafikoa.- Akutuen ospitaleetan alta emandako pazienteak, sarrien ematen diren diagnostiko-taldean arabera, 2005-2006



Iturria: Eustat.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira oraindik ere ospitalizazio-kausa nagusia, 2006an guztien %12,3 eragin baitute; estatuan bere osotasunean bestela da, bigarren tokian daude; lehenengoan haurdunaldi, erditze eta erditze-ondokoak daudelarik (2005. urtean). Talde horretan ospitalizaziorik gehien ekarritako gaixotasunak honako hauek izan ziren: zain barizedunak, gutxiegitasun kardiakoa, arteriosklerosi koronarioa, eta disritmia kardiakoa.


Ospitalizatzeko bigarren arrazoia digestio-aparatuko gaixotasunak izan dira, %11,7, eta 2006an %6 hazi ziren. Ugarietak hauek izan dira: izterrendoko etena eta bestelako abdomen etenak (%23,6), behazun-harriak (%15,3) eta apendizitis akutua (%7,0).

2006an %10,5 hazi ziren **nerbio-sistemako eta zentzumen organoen gaixotasunak**, eta hirugarren postuan kokatu ziren (guztirakoaren %10,4); begi-lausoak izan zen ugariena ospitalizazio arrazoen artean.

Neoplasiak (tumoreak) eta arnas aparatuko gaixotasunak portzentaje berean (guztirakoaren %8,9) dira laugarren postuan. Tumoreak eragindako ospitalizazioak %4,5 hazi ziren 2006an; batez ere kolonekoak, arnas aparatukoak eta umetokikoak. Aitzitik, arnas aparatuko gaixotasunek ekarritako ospitalizazioak %5,9 jaitsi ziren. Nabarmendu egiten dira bronkitisa, pneumonia eta gripea; hauek batez ere 65 urte eta gehiagoko jendearek erasaten diete (gizonei gehiago) eta baliteke murrizketan txertatze kanpainak eraginik izatea

Berrosptalizaziorik gehien ekarri zuten diagnostikoak: mantentze-kimioterapia, batez ere 45-64 urte bitartekoaren artean; eta bronkitis kronikoa eta gutxiegitasun kardiakoa, batez ere 65 urte eta gehiagoko gizonen artean

2. grafikoa.- Akutuen ospitaleetan alta hartutako pazienteak, sarrien ematen diren diagnostiko-taldearen arabera, 2006. urtea



Iturria: EUSTAT

Maizago gertatzen diren gaixotasunen hurrenkera ezberdina da sexuaren arabera. **Zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren ospitalizazioen lehen arrazoia gizonezkoen artean eta hirugarrena emakumezkoen artean.** Gizonezkoen artean bigarren postuan digestio aparatukoak dira eta ondoren arnas aparatukoak. Emakumeen artean haurdunaldi-erditze-erditze ondokoaren taldea dago aurrea, gero nerbio-sistema eta zentzumen organoak.

Sexuarekin eta adinarekin lotutako patologia-motari begiratuz gero, hona hemen ospitaleko diagnostikotik ugarietak: 14 urtetik beherakoaren artean amigdalitis kroniko-adenioidea; 15-44 urtekoaren artean belauneko barne-arazoa, kiste pilodinala (sakroaldean) eta izterrendoko etena gizonezkoen artean; emakumeen artean haurdunaldi-erditze-erditze ondoko, gero antzutasuna eta zain barizetunak. 45-64 urtekoen taldean, belauneko barne-arazoa eta izterrendoko etena nabarmen diren gizonezkoetan, eta besoko neuropatia eta zain barizetunak emakumezkoetan. 65 urtetik gora dutenen artean, begi-lausoak da gehien diagnostikatutako gaixotasuna, eta horren atzetik bronkitis kronikoa gizonetan eta osteoartrosia emakumezkoetan.

2006an gehien egindako prozedura kirurgikoak aparatu muskulu-eskeletikoak izan ziren, batez ere belaunean eta aldakan. Ondoren digestio aparatukoak datoz, batez ere etena konpontzea 45-64 urte bitarteko gizonengan, eta begikoak, batez ere begi-lausoa 65 urte eta gehiagoko pertsonengan.

1. taula.- Alta hartutako pazienteak, diagnostiko-talde handien arabera

	2005	2006	Δ %
Total	280.441	291.332	3,9
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	35.391	35.852	1,3
Digestio aparatuko gaixotasunak	32.118	34.056	6,0
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak	27.416	30.299	10,5
Arnas aparatuko gaixotasunak	27.402	25.784	-5,9
Neoplasiak (tumoreak)	24.843	25.951	4,5
Haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa	24.701	24.841	0,6
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	23.285	25.205	8,2
Lesioak eta pozoidurak	21.221	21.674	2,1
Aparatu genito-urinarioko gaixotasunak	16.147	16.637	3,0
Gaizki definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak	12.653	12.983	2,6
Trastorno mentalak	5.048	5.015	-0,7
Gaixotasun endrokino, nutrizional eta metabolikoak	4.092	4.430	8,3
Larruazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	4.081	5.165	26,6
Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	3.592	3.664	2,0
Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak	2.999	3.193	6,5
Sortzetiko anomaliak	2.401	2.411	0,4
Jaiotza-inguruko aldian sortutako gaixotasunak	1.822	1.845	1,3
Beste batzuk	11.229	12.327	9,8

Iturria: Eustat.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp